

**Demokrazia oztopoa da
proiektu neoliberal eta zentralistarako;
botere publikoen gehiegikeria
geldiarazi behar dugu.**

ELAko Nazio Batzordearen ebazpena

Bilbo, 2010ko urtarrilaren 25a

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Demokrazia oztopoa da proiektu neoliberalak eta zentralistarako; botere publikoen gehiegikeria geldiarazi behar dugu

ELAko Nazio Batzordearen ebazpena

Bilbo, 2010ko urtarrilaren 25a

1. Ebazpen honekin ELAko Nazio Batzordeak plazaratu egin nahi du Lopez Lehendakariaren bi dekreturi buruzko iritzia; horietako batean Lan Harremanen Kontseiluko (LHK) kideak izendatzen ditu (25/2009 Dekretua, abenduaren 29koa), eta bestean euskal Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko (EGAB) kideak (26/2009 Dekretua, abenduaren 29koa).

Lan Harremanen Kontseiluari buruzko xehetasunak

2. Lehenari buruz, egia da legeak Lehendakariari LHKko kideak izendatzeko ahalmena ematen diola, baina betiere sindikatu eta enpresaburu-elkarteek erabaki ondoren. Beraz, izendapen formal bat da.
3. ELAk uko egin zion izendapenak egiteari -izendatzeko eskubide hau Kontseilua arautzen duen legearen 4.3 artikulua aitortzen dio- 2007an eta 2009an. Erabaki aktiboa izan zen, 2006ko urriaren 2an ebatzi zuenaren ondorio: "LHKko parte hartzea epe jakinik gabe eta ondorio guztietarako bertan behera uztea", alegia.
4. Gogoratu beharra dago erabaki hau zergatik hartu genuen. 2006an Cebek patronalak (Confedebako kide denak) akusazio partikular gisa jardun zuen gure sindikatuko kide batzuren aurkako auzibide batean; hauentzat hainbat urteko espetxe-zigorra eskatu zuen 2002an Bizkaiko Hormigoitza eta Harrobien greban parte izan zirelako. Patronalak eta minoria sindikalak sektorerako akordio bat sinatu ostean ekin zitzaion grebari. Eta auzi hartan bertan ugazaba-elkarteak gure sindikatuari gatazkan eragindako ustezko kalteen ardura zibil subsidiarioa egozteko eskatu zuen. Hartara, ELAk erabaki zuen ezin zuela elkarte patronal honekin topagune berean egon, batetik (era hautatuan) sindikatuko militanteak kriminalizatzea erabaki zuelako, eta bestetik, oinarritzeko joko-arau bat, demokratikoki ebazitzeko gehiengo demokratikoen errespetua, urratzen zuelako.
5. Nabarmendu nahi dugu, beraz, organo honetan gure parte hartzea bertan behera uzteak helburu

demokratiko eta sindikala zeukala. Zilegizko erantzun sindikala eman nahi genion patronalak gutxiengoen akordioak sinatzeko erabakiari. Gure partaidetza etetearen helburua sistema demokratiko baten funtsezko diren joko-arauak errespetatu araztea zen.

6. 2009ko ekainaren 5ean Ajuria-enean izandako bileran ELAk Lehendakariari hainbat agiri eman zizkion; horietan azaltzen ziren, besteak beste, sindikatuak LHKn eta EGABen parte hartzea etetea dituen arrazoiak.
7. LHK arautzen duen legeak (11/1997, ekainaren 27koa) dioenez, Kontseilua parekidea izango da eta zarpina kideko bi alderdik osatuko dute: erakunde zein konfederazio sindikalen ordezkariak eta enpresaburu-konfederazioenak. ELAri zazpi horietako hiru dagozkio, hauteskunde prozesuetan lortu duen %40aren ondorio logiko. Dekretu hauek onartu arte hau aintzat hartu izan da.
8. Gauzak horrela, abenduaren 29an Lehendakariak organoaren osaera berria eman du dekretuz, eta ELAri dagozkion postuak CCOO eta UGTren artean banatu ditu. LABek uko egin dio Lehendakariak emango zion postu gehigarria hartzeari; CCOOek eta UGTk, berriz, ez dute berdin jokatu, eta "gehiengo bat eman zaie" organoaren alderdi sindikalean; berez ez duten gehiengoak.
9. Hartara, ELAk gogora arazi nahi du, eta jendea jakinarazi, inola ere ez diola uko egin dagokion ordezkartzari.

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen inguruko xehetasunak

10. Halaber, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Legeko (9/1997, ekainaren 27koa) 5.3 artikulua Lehendakariari ematen dio Kontseilua osatzen duten kideak izendatzeko ahalmena, sindikatuen eta enpresaburu-elkarteen erabakien arabera.
11. ELAk EGABeko partaidetza ere bertan behera uztea erabaki zuen, ondorio guztietarako eta epe jakinik

gabe, 2008ko ekainaren 5ean. Erabaki hau ere behar bezala arrazoitu zen eta helburu sindikala zeukan.

12. ELAk eten horrekin kontsulta-erakundearen antzutasuna salatu nahi zuen. Batetik, organoaren esparrutik at geratzen dira berebiziko garrantzia duten gaiak (zerga-politika, menpekotasuna, azpiegiturak...), foru-aldundien eskumeneko direlako. Bestetik, Eusko Jaurlaritzak ez ditu EGABen iritzia aintzat hartu bere eskumeneko politikak erabakitzerakoan (Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko dekretuak, etxebizitza politikak, gizarte-zerbitzuak...).
13. Nabarmendu beharrean gaude aurreko paragrafoan esandakoa. Harrigarria da, eta Europan beste inon ez da ikusi, kontseilu ekonomiko eta sozial batek ahalmenik ere ez izatea gizarte- eta ekonomi-gaie-tan horrenbesteko garrantzia duten gaiak jorratzeko: adibidez, zerga-politika, Lurralde Historikoen Legearen ondorioz foru-aldundien esku dagoelako.
14. Partaidetza eteteko beste arrazoi bat patronalak Abiadura Handiko Trenari buruzko eztabaida ukatu izana dugu. EAEn inoiz izan den azpiegitura-lanik handiena -ekonomian, gizartean eta ingurumenean izugarritzko eragina izango duena- aztertu nahi ez izateak argi uzten du berriro, ELAren iritziz, erakun-dea ez dela eragingarria.
15. Haatik, gure partaidetza etetearen asmo bakarra ez zen salaketa. Bazituen ere helburu jakin batzuk: patronalak eztabaida blokatzeko jokabidea duenerako bermeak ezartzea; legearen arabera erakun-deari dagozkion egitekoak betetzea, eta gobernuaren zein Legebiltzarraren benetako kontsulta-erakunde izatea, bizitza politikoan interes ekonomiko eta sozial desberdinen parte hartzea gauza dadin. Gure helburua da ere EGABek gai sozial eta ekonomikoak jorratu ahal izatea, eskumenak foru-erakun-deen edota Gasteizko gobernuarenak direla ere.
16. Bada, honi buruz ere abenduaren 29an Lopez Lehendakariak EGABen osaera berria ezarri du dekretuz, LHKrako erabili duen irizpide berberarekin; kasu honetan ELAri eta LABi dagozkion postuak (LABek ez baitu kiderik izendatu) CCOO eta UGTren artean banatu ditu.
17. EGABi buruz ere ELAk gogoratu nahi du ez diola inola ere dagokion ordezkartzari uko egin.

Erabaki politiko zinez larria

18. Gertatutakoari buruzko iritzia ematen hasi aurretik Nazio Batzordeak argi utzi nahi du Jaurlaritzak ez

duela ELArekin harremanik izan gai hauetaz hitz egiteko; baina LHKko edo EGABeko inongo kidek ere ez du ELAren gaitasuna jo aipatutako bi dekretuak bultzatzen erabaki politikoa hartu baino lehenago. Hartu duten bidea: zilegizko interesak defenditzean aldean artean gertatzen diren desadostasunak saihestea, eta hortik abiatuta, aldeko diren sindikatu-uei ordezkartzat handiagoa ematea, "gehiengo berri" eta "legitimitate berri" batzuk sortze aldera. Hau guztia nola kudeatu den ikusita, ondorio argi batera iritsi gara: prozesu honetan asmo gaiztoz ere jokatu dute.

19. Hori dela eta, ELAren iritziz Lopez Lehendakariak eman dituen bi dekretuak -26/2009 eta 25/2009-eraso zuzena dira, helburu anitzak dituen: gure sindikatua, duen ordezkartzat, bultzatzen duen eredu sindikala, eta bere jarduera gauzatzeko erabakitzen dituen ekinbideak edo ez egiteko erabakiak.
20. Gainera, gure ustez bi dekretuak erakundeok duten araudiaren aurka doaz. Eta politikoki oso larriak dira, ugazabek bultzatutako politika neoliberalen mesedetan egiten baitira, eta beren xedea sindikalismo espainolaren laguntzaz Estatu-logika ezartzea baita, lan-harremanak uniformatzeko joerari eutsi dion esparru batean. Honen helburua: Jaurlaritzak patronalaren mesedetan egiten duen politikarentzako onespina lortzea parte hartzeko organo hauen aldetik.

Ordezkaritza printzipioa, urratua

21. ELAren ustez, Lehendakariaren erabaki politikoak ordezkartzat printzipioa, sistema demokratikoaren zutabea, oso era gordinean urratzen du. Eta are larriagoa da hau hain zuzen esparru honetan gertatzea, hots, esparru instituzionalean interes ekonomiko eta sozial kontrajarriak ordezkatzeko xedea duten erakundeetan. Erabaki horrekin de facto eragotziko dute aurrerantzean erakunde horietan bes-telako ideia, proposamen eta ikuspuntu batzuk adieraztea, euskal langile klasean hauteskundez-hauteskunde oihartzun handia dutenak. ELAk abstentzioari balio politiko eta demokratikoa ematen dio; aukera bat da, eta eskubidea, eta eskubide honi ezin zaio ordezkartzat ebatsiz erantzun.
22. Ordezkaritzaren aurkako erabaki hau gobernuak, eta zehatzago bere ordezkari gorenak, ez dagokion tokian esku hartuta egin liteke soilik, modu ilegiti-moan gainera. Esku hartze honekin desitxuratu egiten dira lan munduak erakunde sindikalei eman dien atxikipenaren eragin instituzionalak. LHK aldeko

erakunde da, sindikatuek lortutako ordezkari zehatz islatu beharko lukeena. Eta EGABez, egitura konplexuagoa izanagatik, gauza bera esan liteke. Lehendakari batek beste edozein herritarrek baino areago jakin beharko luke demokrazia mugak ezartzen dituen sistema dela, hain zuzen botereak, beren logikan murgilduta, gehiegikerian jausteko arriskua saihesteko bermeak ematen dituena.

23. Horrenbestez, Lehendakariaren jokabide hau ikusita, ELAK egoki irizten dio duela zenbait hilabete estatutik entzuten diren lan-harremanen erreforma hotsei buruz esandakoa gogoratzea: "bertikalismo berri bat eratu nahi dute elkarrizketa sozialaren bidetik; horren baitan gobernu, sindikatu eta patronalaren tertzioek "legitimitate berri" bat ezartzen dute, non aldizkari ofiziala erabiliaz erakunde sindikalen ordezkapen funtzioa, berezkoa eta demokratikoa, bazter geratuko den".
24. Arestian esan dugu erakunde horietan gure parte hartzea eteteak zergatia eta xedea zuela. ELAK Jaurlaritzarekin gaiok eztabaidatu nahi izango zituzkeen, eta hala jakinarazi izan dio ahal izan duen guztietan. Izan ere, gogoratu beharra dago Gemma Zabaleta Enplegu sailburuak hitza jan eta behin eta berriz uko egin diola ELArekin biltzeko aukerari. Sindikatu nagusiarekin ez biltzeak, honek esaten duena gustokoa ez delako, baztertu egiten ditu gobernu-jardun demokratiko baten funtsezko kode behar luketenak.

Argudio iruzurtiak bidegabekeria gizartean legitimatzeko

25. ELAko Nazio Batzordeak gezurtatu egin nahi ditu hau egiteko erabili diren bi argudio nagusiak.
26. Lehenik, ELAri erakundeotan betoa ezartzea leporatu diote. Salaketa honek ez dauka ez hanka ez bururik, izan ere soilik ugazaben alderdiak, ordezkari unitarioa izanik, bloka baitezake erakunde. Alderdi sindikalean, berriz, eta ez zegoen beste aukerarik, erabakiak gehiengo eta gutxiengo printzipio demokratikoen menpe geratzen dira. Eta ELAK ez du inoiz gehiengorik izan alderdi sindikalean. Gogora dezagun, bide batez, LHKn erabakiak hartzeko arauak, oraindik indarrean daudenak, PSE Jaurlaritzako kide zelarik ezarri zirela, Ramon Jauregi Lan sailburu zen garaian.
27. Balizko erreforma bat legitimatzeko erabili izan den beste argudio bat: erakunde hauetan, orain arte araututa zeuden moduan, ez omen zen "akordiorik lortzen". Argudio hau ugazabek ere sarri aipatu dute -bi dekretuei esker ordezkari faltsutzearen onura-

rik handiena eurentzat izango da-; hau absurdua da, demokrazia batean ezin baita alderdi bat nahi ez duen akordiorik onartzera behartu. Eta burugabeke-ria ia maila dramatikora ailegatu da duela gutxi Enplegu sailburuak esandakoarekin: Erakunde horiek funtziona dezaten "horietatik at utzi behar dira kalean dauden gatazkak". Zein da, beraz, parte hartzeko organo baten xedea? Existitzen ez den gatazka bat konpontzea?...

Politika neoliberalen eta laguntzaile sindikalen zerbitzura

28. Ziurrenik galdera horiek badute erantzuna. ELArentzat erantzun hori behin betikoa da: Lehendakariak erabaki duen ordezkari printzipioa urratzeak helburu jakin bat du, EAEn estatua- ren antzeko lan-harremanen eredu eratzea, zeina lau oinarritan finkatuta baitago:
- Patronalak eskatu dituen politika neoliberalen legitimizazio soziala
 - Estatuko eredu ezarrita lan-harremanak uniformatzea (langileen prestakuntza, politika aktiboak, lan-osasuna...)
 - Eredu honetan parte hartzen duten sindikatuei eta ugazaba-elkarteei kudeaketa eta finantzazio esparru zabalak eskaintzea
 - Gobernua bera eta bere politika iritzi publikoaren aurrean legitimatzea. Hau dagoeneko gertatzen ari da: elkarrizketa sozialean parte hartzen dutenek - zeinek dekretuen indarrez ordezkari handi- goa duten- goraiatu egiten dituzte hartzen diren erabakiak, bai Osalanen, bai enplegu-politika aktibo- inguruan.
29. Hots, ordezkari printzipio lan-harreman eredu baten zerbitzutan urratzen da, patronalari mesede egiten dion eredu, estatukoaren antzekoa eta finantza publiko eskuzabalek otzandutako sindikalismo bat eragiten duena. Gainera, ez da ahaztu behar lan-harremanen eredu honen baitan galdu dela, zirkinik gabe, krisia hasi zenetik Europako Batasun guztiko enpleguaren erdia.
30. Lopez gobernuak, euskal patronalak, UGTk eta CCOOek bazekiten kolpe hau ezin zutela eman printzipio demokratikoa aintzat hartuta. Orain gehiengoa duen sindikalismoa baztertzeko dute dekretuz, parte hartzeko erakunde faltsutu batzuk ezartzeko.

Gure ereduari eusten diogu

31. Gizarte- eta lan-munduko erakundeetan gertatzen ari denaren ondorioz ez dugu jarrera biktimistarik hartuko, inondik ere. Gertatzen ari dena oso larria da, eta ezin dugu bakarrik guri jazotakoa aintzat hartu. Gure kezka nagusia eta egin beharreko borroka hainbat egitatek erabakiko dute: politiken joera neoliberalak, demokraziaren perbertsioak eta sindikalismo instituzionala otzantzeak.

32. ELAk eutsi egiten dio, egoera honetan are indar handiagoz, bere eredu sindikalari: kontrabotere izatea, autonomia politika eta finantzen ikuspegitik, eta euskal langile-klasearen zerbitzutan lan egitea. Non, eta EB guztian diharduen esparruko sindikatu nagusia erakundeetatik -eta aldebiko harreman normaletik- bazterten duen herri bakarrean. Izan ere, gogorra dezagun duela hainbat urtetik hona jasaten dugula apartheid hori Nafarroako Foru-Komunitatean.